Diligencia: Para hacer constar que el presente documento ha sido aprobado por el Consejo General del Consorcio de Transportes de Bizkaia de fecha:

Egnbidea: Zera jasota gera dadin ondoren aipatzen den datan, Bizkaiako Garraio Partzuergoaren Kontseilu Nagusiak agiri hau onartu duela:

2017ko urriaren 31

Doy fe.

Fede ematen dut.

Data/Fecha: Bilbao (a), 2017/X/31

Idazkari nagusia/El secretario general

bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

## CARÁTULA DEL PLIEGO DE CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES

## ADMINISTRAZIO-KLAUSULA BEREZIEN PLEGUAREN AZALA

### CONTRATO DE SERVICIO

### ZERBITZU-KONTRATUA

**A.- Objeto del Contrato**

Contratación para la implantación y explotación de una red de comercialización para la venta, recaudación, recarga atendida, almacenaje y distribución de la tarjeta sin contacto Barik y títulos comunes.

El licitador deberá ofertar todos los servicios que comprenden este contrato.

CPV Reglamento 213/2008 de 28 de noviembre de la Comisión Código: 63512000-1

**A.- Kontratuaren xedea**

Kontakturik gabeko Barik txartela eta titulu komunak saldu, bildu, birkargatu, biltegiratu eta banatzeko merkaturatze-sarea ezarri eta ustiatzeko kontratazioa.

Lizitatzaileak kontratu honetan jasotzen diren zerbitzu guztiak eskaini beharko ditu.

Batzordearen azaroaren 28ko 213/2008 CPV Arautegia. Kodea: 63512000-1

**B.- Departamento Promotor**

Dirección Gerencia.

**B.- Sustatzen duen saila**

Zuzendaritza Nagusia.

**C.- Órgano de contratación**

Consejo General del Consorcio de Transportes de Bizkaia.

**C.- Kontratazio-organoa**

Bizkaiko Garraio Partzuergoaren Kontseilu Nagusia.

**D.- Presupuesto de licitación**

De conformidad con lo establecido en la disposición adicional trigésima cuarta del Real Decreto Legislativo 3/2011 de 14 de noviembre por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, en el cual el contratista se obliga a ejecutar el servicio de forma sucesiva y por precio unitario, sin que el número total de entregas o prestaciones incluidas en el objeto del contrato se defina con exactitud al tiempo de celebrar éste, por estar

**D.- Lizitazio-aurrekontua**

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren hogeita hamalaugarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, kontratista zerbitzua hurrenez hurren eta unitateko prezioan ematera dago behartuta, ondasun kopuru osoa kontratua egiteko unean zehaztasunez mugatuta egon gabe, ondasunak administrazioaren premien arabera egiteagatik entregak. Zerbitzu honen

V

Ugasko, 5 bis - 1º dcha. 48014 Bilbao - Tel. 94 476 61 50 - partzuergoa@cotrabi.eus

subordinadas las mismas a las necesidades de la Administración. Los ingresos a percibir por el adjudicatario de este servicio dependerán principalmente del volumen de ventas efectivo y de los precios unitarios para cada concepto tal como se detalla en el pliego de prescripciones técnicas y que se resumen a continuación.

adjudikazio-hartzaileak izango dituen diru-sarrerak benetako salmenta-bolumenaren eta kontzeptu bakoitzaren aleko prezioen araberakoak izango dira; hala dago zehaztuta ondoren laburtu den baldintza teknikoen pleguan.

- Venta de tarjeta anónima.
Se establece una comisión máxima del 3,5% (IVA excluido) por este concepto.

- Txartel anonimoaren salmenta.
Kontzeptu honengatik gehienez % 3,5eko komisioa ezarri da (BEZ kanpo).

- Ingresos por la recarga atendida de títulos en las tarjetas. El adjudicatario percibirá una comisión máxima por cada recarga atendida de títulos, que se limita en función de volúmenes de venta (IVA excluido) siendo la comisión máxima del 3,2% (IVA excluido).

- Txarteletan tituluak birkargatzeagatiko diru-sarrerak. Tituluak birkargatzen dituen bakoitzean komisio bat jasoko du adjudikazio-hartzaileak; komisio hori mugatu egingo da salmenta-bolumenaren arabera (BEZ kanpo) eta gehienez % 3,2koa (BEZ kanpo) izango da.

- Ingresos por almacenaje y distribución.
Se establece un precio mensual de 4.800 € (IVA excluido), con 12 entregas mensuales en el precio, cualquier entrega adicional tendrá un precio unitario máximo de 25,00 € (IVA excluido).

- Biltegiratze eta banatzeagatiko diru-sarrerak.
Hileko prezio hau ezarri da: 4.800,00 € (BEZ kanpo). Prezio horretan hilean 12 entrega izango dira; hortik gorako edozein entrega gehigarrik gehieneko aleko prezioa izango du: 25,00 € (BEZ kanpo).

- Ingresos por equipamiento, instalación y puesta en operación, funcionamiento y mantenimiento de la red de cabinas.
Se establece un precio mensual máximo de 35,00 € (IVA excluido) por cada punto de venta.

- Kabina-sarea ekipatu, instalatu, abian jarri, funtzionatzen eduki eta mantentzeagatiko diru-sarrerak.
Hileko gehieneko prezio hau ezarri da salmenta-puntu bakoitzeko: 35,00 € (BEZ kanpo).

| | |
|---|---|
| **AURREIKUSITAKO BALIOA BEZ KANPO<br>VALOR ESTIMADO –IVA EXCLUIDO-** | 4.641.322,00 € |

E.- Anualidades previstas (IVA incluido)

E.- Aurreikusitako urterokoak (BEZ barne)

| Año/Urtea | Importe anualidad/Urterokoaren Zenbatekoa |
|---|---|
| 2018 | 650.000 € |
| 2019 | 780.000 € |
| 2020 | 780.000 € |
| 2021 | 780.000 € |
| 2022 | 130.000 € |

F.- Consignación Presupuestaria

Tramitación anticipada. La adjudicación queda sometida a la condición suspensiva de existencia de crédito adecuado y suficiente para financiar las obligaciones derivadas del contrato en el ejercicio 2018.

F.- Aurrekontuaren kontsignazioa.

Izapidetze aurreratua. Adjudikazioa honen araberakoa izango da: aurrekontuetan kreditu egokia eta nahikoa egotea, 2018ko ekitaldiko kontratuaren ondoriozko obligazioak finantzatzeko.

G.- Tramitación

Ordinaria.

G.- Tramitazioa

Arrunta.

H.- Procedimiento de Adjudicación

Abierto.

H.- Adjudikazio-prozedura

Irekia.

I.- Criterios de Adjudicación

I.- Adjudikazio-irizpideak

I.1- Criterios cuantificables automáticamente – Sobre B

I.1- Automatikoki zenbatu daitezkeen irizpideak – B gutun-azala.

- Propuesta económica formulada Valoración de 0 a 40 puntos.

El licitador deberá aportar la correcta y completa redacción con clara descripción y desglose de los precios unitarios indicando la retribución al canal de venta en los conceptos que proceda.

- Eskainitako proposamen ekonomikoa. Balorazioa: 0tik 40 puntura.

Lizitatzaileak zuzen eta osorik idatzita ekarri beharko du eskaintza ekonomikoa, aleko prezioak argi azalduta eta banakatuta; halaber, garbi adierazi beharko da salmenta-kanalari zenbat ordainduko zaion dagokion kontzeptuetan.

## VALORACIÓN DE LA OFERTA ECONÓMICA
## ESKAINTZA EKONOMIKOAREN BALORAZIOA

| | PUNTUACIÓN MÁXIMA<br>GEHIENEKO PUNTUAZIOA |
|---|---|
| ***Txartelean tituluak birkargatzeko zerbitzua arreta-puntuetan***<br><br>*Salmenta-bolumenen tarte bakoitza baloratuko da proposamen ekonomikoan ezarritakoaren arabera.*<br>▪ *Zero puntu (0) emango zaio gehieneko komisioa berdintzen badu.*<br>▪ *Gehieneko puntuazioa emango zaio beherapenik handiena egiten duen eskaintzari.*<br>▪ *Gainerako eskaintzak proportzionalki puntuatuko dira.*<br>--------------------<br><br>**Servicio de recarga de títulos dentro de la tarjeta en puntos atendidos**<br><br>Se realizará la valoración para cada tramo de volúmenes de ventas según lo establecido en proposición económica.<br>▪ Cero (0) puntos si iguala la comisión máxima.<br>▪ Puntuación máxima a la oferta que realice la mayor baja.<br>▪ Asignación de puntos al resto de las ofertas proporcionalmente. | 16<br>puntu / puntos |
| ***Kabina-sareko instalazioa, ekipamendua, mantentze-lana eta saltokiko terminala. Saltokiko terminal bakoitzeko prezioa hileko.***<br><br>▪ *Zero puntu (0) emango zaio gehieneko prezioa berdintzen badu.*<br>▪ *Gehieneko puntuazioa emango zaio beherapenik handiena egiten duen eskaintzari.*<br>▪ *Gainerako eskaintzak proportzionalki puntuatuko dira.*<br>--------------------<br><br>**Servicio de instalación, equipamiento, mantenimiento y de tpv en la red de cabinas precio / mensual por cada tpv**<br><br>▪ Cero (0) puntos si iguala el precio máximo.<br>▪ Puntuación máxima a la oferta que realice la mayor baja.<br>▪ Asignación de puntos al resto de las ofertas proporcionalmente. | 7<br>puntu / puntos |

| | |
|---|---|
| *Banaketa-kanalari ordaintzekoa*<br><br>▪ *Zero (0) puntu emango zaio salmenta-puntuari gutxien ordaintzen dionari.*<br>▪ *Gehieneko puntuazioa emango zaio salmenta-puntuari gehien ordainduko dionari, baldin eta pleguetan eskatutako gutxienekoa baino gehiago bada. Hauxe da ezarritako gutxienekoa: txartelen salmentaren kasuan % 66, eta tituluak kargatzeari dagokionez % 50.*<br>▪ *Gainerako eskaintzak proportzionalki puntuatuko dira.*<br>--------------------<br><br>Retribución al canal de distribución<br><br>▪ Cero (0) puntos al que dé la menor retribución al punto de venta.<br>▪ Puntuación máxima al que mayor retribución oferte al punto de venta, por encima del mínimo exigido en pliegos, que en el caso de venta de tarjetas es del 66% y en el de recarga de títulos del 50%.<br>▪ Asignación del resto de puntos al resto de las ofertas proporcionalmente. | 8<br>puntu / puntos |
| *Txartel anonimoen salmenta*<br><br>▪ *Zero puntu (0) emango zaio gehieneko komisioa berdintzen badu.*<br>▪ *Gehieneko puntuazioa emango zaio beherapenik handiena egiten duen eskaintzari.*<br>▪ *Gainerako eskaintzak proportzionalki puntuatuko dira.*<br>--------------------<br><br>Venta de tarjetas anónimas<br><br>▪ Cero (0) puntos si iguala la comisión máxima.<br>▪ Puntuación máxima a la oferta que realice la mayor baja.<br>▪ Asignación de puntos al resto de las ofertas proporcionalmente. | 5<br>puntu / puntos |

| | |
|---|---|
| *Biltegiratze- eta banaketa-zerbitzua*<br><br>▪ *Zero puntu (0) emango zaio gehieneko prezioa berdintzen badu.*<br>▪ *Gehieneko puntuazioa emango zaio beherapen handiena egiten duen eskaintzari.*<br>▪ *Gainerako eskaintzak proportzionalki puntuatuko dira.*<br>--------------------<br><br>**Servicio de almacenaje y distribución**<br><br>▪ Cero (0) puntos si iguala el precio máximo.<br>▪ Puntuación máxima a la oferta que realice la mayor baja.<br>▪ Asignación de puntos al resto de las ofertas proporcionalmente. | 4<br>puntu / puntos |

**I.2- Criterios no cuantificables automáticamente – Sobre C**

**1º.- Servicio ofertado (Valoración de 0 a 35 puntos, umbral mínimo 17 puntos)**

El licitador deberá ofertar todos los servicios que comprenden este contrato.
Se valorará la estructura de red de comercialización propuesta por encima de la red mínima exigida en los pliegos de especificaciones.

- El licitador deberá presentar detalle de la red de ventas, número de puntos de venta, ubicación de los mismos, condiciones del punto de venta (establecimiento, kioskos, locales abiertos, cerrados,...) su accesibilidad, horario y calendarios de comerciales.

- Se valorará el planteamiento de servicio realizado tanto para el CTB como de soporte a los operadores

**I.1- Automatikoki zenbatu ezin diren irizpideak – C gutun-azala.**

**1.- Eskainitako zerbitzua (0 eta 35 puntu arteko balorazioa; gutxieneko atalasea: 17 puntu).**

Lizitatzaileak kontratu honetan jasotzen diren zerbitzu guztiak eskaini beharko ditu.
Proposatutako merkaturatze-sarearen egitura baldintza-pleguetan eskatutako gutxieneko sarearen gainetik egotea baloratuko da.

- Lizitatzaileak honako hauen xehetasunak eman beharko ditu: salmenta-sarea, salmenta-puntuen kopurua, horien kokalekua, salmenta-puntuaren baldintzak (establezimendua, kioskoak, lokal irekiak, itxiak...), irisgarritasuna, saltzaileen ordutegia eta egutegia.

- BGPri nahiz eragileei laguntzeko eskainitako zerbitzuaren planteamendua baloratuko da

(Red de cabinas).

- Se valorarán las garantías, medios y recursos que el licitador ofrece para el desarrollo del contrato y su adecuación a las necesidades del Consorcio de Transportes de Bizkaia, especialmente las garantías que el licitador aporte para asegurar el ingreso puntual e íntegro de la recaudación obtenida, incluso en situaciones de morosidad de algunos puntos de la red.

- Se valorarán los recursos tanto humanos como materiales que el licitador ponga a disposición del Consorcio de Transportes de Bizkaia para la ejecución del contrato, con especial mención de los recursos asignados localmente: oficinas, delegaciones, almacenes...

- Se valorará el equipo de trabajo asignado a la ejecución del contrato.

- Se valorará la disponibilidad y plazos de respuesta a las distintas peticiones del Consorcio de Transportes y demás agentes del Sistema Barik.

- Se valorarán aquellos otros aspectos de la estructura del licitador que resulte adecuado para el desarrollo del contrato y que el licitador ponga a disposición del Consorcio sin coste adicional.

(kabina-sarea).

- Lizitatzaileak kontratua betetzeko eta Bizkaiko Garraio Partzuergoaren beharretara egokitzeko eskaintzen dituen bermeak, bitartekoak eta baliabideak baloratuko dira; bereziki, egindako diru-bilketa garaiz eta osorik sartuko dela ziurtatzeko eskaintzen diren bermeak, baita sareko puntu batzuetan berankortasun-egoerak sortzen badira ere.

- Kontratua gauzatzeko xedez lizitatzaileak Bizkaiko Garraio Partzuergoaren esku jarri dituen giza baliabideak eta baliabide materialak baloratuko dira; bereziki, toki bakoitzean jarritako baliabideak: bulegoak, ordezkaritzak, biltegiak...

- Kontratua burutzeko jarri den lantaldea baloratuko da.

- Garraio Partzuergoaren eta Barik Sisteman parte hartzen duten gainerako eragileen eskariei erantzuteko eskuragarritasuna eta epeak baloratuko dira.

- Lizitatzailearen egiturako beste alderdi batzuk ere baloratuko dira, kontratua betetzeko egokiak direnak eta lizitatzaileak Partzuergoaren esku jarri dituenak kostu gehigarririk gabe.

**2º.-Calidad y solidez de la proposición técnica presentada por los licitadores. (Valoración de 0 a 25 puntos, umbral mínimo 12 puntos).**

En este apartado se valorará el entendimiento del proyecto su valor técnico, planteamiento y enfoque de ejecución.

- Se valorará el estudio exhaustivo de la solución técnica propuesta, el planteamiento para la incorporación de los nuevos elementos y funcionalidades, comprobando las características técnicas y de funcionamiento propuesto, con referencias concretas a modelos y marcas de aquellos elementos que sean instalados de acuerdo con las especificaciones técnicas.

- Se valorará el contenido de la oferta en cuanto a la descripción de los trabajos y detalle del programa de trabajos, su coherencia y buen conocimiento de la problemática. Se valorará la planificación de la implantación de la red de comercialización, identificando sus fases y los plazos de cada una de ellas, considerándose especialmente la coherencia entre los trabajos a desarrollar y cualquier propuesta de reducción del plazo máximo de implantación establecido.

Detalle y planificación de la entrega de la documentación, del plan de

**2.- Proposamen teknikoaren kalitatea eta sendotasuna. (Balorazioa: 0 eta 25 puntu artean; gutxieneko atalasea: 12 puntu).**

Atal honetan proiektua ulertzea eta haren balio teknikoa baloratuko dira, baita planteamendua eta egiteko ikuspegia ere.

- Honakoak baloratuko dira: proposatutako konponbide teknikoaren azterlan zehatza, elementu eta funtzionalitate berriak sartzeko planteamendua. Proposatutako ezaugarri tekniko eta funtzionamenduzkoak egiaztatuko dira, baldintza teknikoen arabera instalatutako elementuen eredu eta markei erreferentzia eginez.

- Eskaintzaren edukia baloratzeko honakoak hartuko dira kontuan: lanen azalpena eta lan-egitarauaren xehetasunak, egitarau horren koherentzia eta arazoen ezagutza. Merkaturatze-sarea ezartzeko planifikazioa baloratuko da; faseak eta horietako bakoitzaren epeak zehaztu beharko dira bertan. Hauxe hartuko da kontuan bereziki: egin beharreko lanen eta ezarpen epea murrizteko edozein murrizketaren arteko koherentzia.

Honakoen xehetasunak eta plangintza ere baloratuko dira:

mantenimiento tanto de hardware, comunicaciones como de software, plan de formación al punto de venta, información.

dokumentazioa ematea; hardwarea, komunikazioak eta softwarea mantentzea; salmenta puntuari eman beharreko prestakuntza-plana eta informazioa.

**Comité de expertos:** Lina Portillo Angulo (presidente), Josu Azanza Arbizu (vocal) y Sonia Cruz Lopez (vocal-secretario). Plazo de emisión de informe: un mes contado a partir de la apertura del sobre C.

**Adituen Batzordea:** Lina Portillo Angulo (presidentea), Josu Azanza Arbizu (mahaikidea) eta Sonia Cruz Lopez (mahaikide-idazkaria). Txostena emateko epea: hilabete bat, C gutun-azala zabaltzen denetik zenbatuta.

**J.- Garantía provisional**

No se exige.

**J.- Behin-behineko bermea.**

Ez da behar.

**K.- Garantía definitiva**

110.000,00 €

**K.- Behin betiko bermea.**

110.000,00 €

**L.- Revisión de precios**

No procede.

**L.- Prezioak berrikustea**

Ez da ezarri.

**M.-Autorización de variantes**

No procede.

**M.- Aldaketak egiteko baimena**

Ez da ezarri.

**N.- Duración del contrato**

4 años desde la puesta en marcha de la red de comercialización. Se establece un plazo máximo de 5 meses, desde la firma del contrato, de implantación para el inicio de la comercialización, plazo que no computa dentro de los 4 años.

**N.- Kontratuaren iraupena**

4 urte, merkaturatze-sarea abian jartzen denetik zenbatuta. Gehienez, kontratu zinatzen denetik, 5 hileko epea ezarriko da merkaturatzea abian jartzen hasteko, eta epe hori ez da adierazitako 4 urte horietan sartuko.

**Ñ.- Opción de prórroga**

Sí, según lo establecido en los Pliegos.
2 años adicionales.

**Ñ.- Luzatzeko aukera**

Bai, Pleguetan ezarritakoaren arabera.
2 urte gehigarri.

**O.- Lugar de ejecución/Entrega**

En los puntos que determine el Consorcio de Transportes de Bizkaia conforme a lo especificado en los pliegos.

**o.- Gauzatzeko/entregatzeko lekua**

Bizkaiko Garraio Partzuergoak zehazten dituen puntuetan Pliegoetan zehaztutakoaren arabera.

**P.- Plazo de Garantía**

No procede.

**P.- Berme-epea**

Ez dagokio.

**Q.- Plazo de presentación de proposiciones**

Según fecha indicada en los boletines.

**Q.- Proposamenak aurkezteko epea**

Buletinetan adierazi den dataren arabera.

**R.- Lugar de presentación de las proposiciones**

Consorcio de Transportes de Bizkaia, Ugasko bidea, nº5-bis, primera planta, 48014-Bilbao

**R.- Proposamenak aurkezteko lekua**

Bizkaiko Garraio Partzuergoa. Ugasko bidea, 5-bis , lehen solairua, 48014 - Bilbo

**S.- Gastos de publicidad**

Si.

**S.- Publizitate-gastuak**

Bai.

**T.- Medios de acreditación de la solvencia**

1. La solvencia económica y financiera del empresario deberá acreditarse mediante justificante de la existencia de un seguro de indemnización por riesgos profesionales por importe no inferior a 600.000 €.

2. La solvencia profesional deberá acreditarse mediante una relación de los principales servicios prestados por el ofertante similares al objeto de licitación en todos sus ámbitos, efectuados durante los cinco últimos años, indicando su importe, fechas y destinatario público o privado de los mismos, cuya suma

**T.- Kaudimena eta gaitasuna egiaztatzeko moduak**

1.- Enpresaburuaren kaudimen ekonomikoa edo finantzarioa egiaztatzeko, ziurtagiri bidez frogatu beharko du baduela laneko arriskuen kalte-ordaineko aseguru bat eta gutxienez 600.000 eurokoa dela.

2. Gaitasun profesionala egiaztatzeko, eskaintzaileak ematen dituen zerbitzu nagusien zerrenda egin beharko da. Zerbitzu horiek lizitazioaren xedearen antzekoak izan beharko dira, azken bost urteetan egindakoak. Halaber, horien zenbatekoa, datak eta hartzaile publikoa edo pribatua

no podrá ser inferior a 1.000.000,00 €.

adierazi beharko dira; batura ezingo da izan 1.000.000,00 euro baino gutxiagokoa.

Por lo menos uno de los servicios acreditados deberá estar basado en tarjeta Mifare Desfire y elementos de seguridad SAM y HSM, de por lo menos 300.000,00 €/año.

Gutxienez egiaztatutako zerbitzuetako bat Mifare Desfire txartelean eta SAM nahiz HSM segurtasun-elementuetan oinarrituta egon beharko da, eta gutxienez 300.000,00 euro/urtekoa izango da.

Los servicios prestados se acreditarán mediante certificados expedidos o visados por el órgano competente, cuando el destinatario sea una entidad del sector público o cuando el destinatario sea un comprador privado, mediante un certificado expedido por éste o, a falta de este certificado, mediante una declaración del empresario.

Egindako zerbitzuak frogatzeko, dagokion organo eskudunak eman eta onetsitako ziurtagiriak aurkeztuko dira hartzailea sektore publikoko erakundea bada. Hartzailea erosle pribatua bada, aldiz, beronek emandako ziurtagiria edo, halakorik ezean, enpresaburuaren adierazpena aurkeztuko da.

3.- Se considerará como requisito mínimo de la solvencia para la prestación del servicio la oferta de una red de puntos de venta mínima de acuerdo con lo especificado en el pliego de condiciones técnicas. Apartado 7.1.2.

3.- Zerbitzua emateko kaudimenaren zein gaitasunaren gutxieneko baldintza hauxe izango da: salmenta-puntuen gutxieneko sarea eskaintzea, betiere baldintza teknikoen pleguaren 7.1.2. idatz-zatian jasotakoarekin bat etorriz.

**U.- Perfil de Contratante**

**U.- Kontratatzailearen profila.**

www.ctb.eus

www.ctb.eus

**V.- Otras especificaciones**

**V.- Beste zehaztapen batzuk**

**1.- Forma de pago:**

**1.- Ordaintzeko modua:**

Certificaciones mensuales tras la implantación de la red de comercialización.

Merkaturatze-sarearen ezarpenaren ondoren, hileroko ziurtagiriak.

**2.- Seguros:**

**2.- Aseguruak:**

El adjudicatario deberá aportar póliza de seguro en los siguientes términos:

Adjudikaziodunak baldintza hauek betetzen dituen aseguru-poliza aurkeztu beharko du:

Responsabilidad Civil Profesional con un

Erantzukizun zibil profesionala, gutxienez

límite no inferior a 600.000 euros con una franquicia máxima de 10.000 euros.

Se incluirá al Consorcio de Transportes de Bizkaia como asegurador adicional, sin perder la condición de tercero.

Póliza de daños para responder del valora nuevo de las tarjetas almacenadas en custodia con un límite no inferior a 300.000€.

**3.-Presentación de la oferta:**

El ofertante deberá presentar su propuesta en soporte papel y CD. Así, en los sobres B y C, además de la documentación en formato papel deberá incluirse un CD conteniendo única y exclusivamente la documentación correspondiente a dicho sobre.
En caso de discrepancia entre ambos soportes prevalecerá la información de soporte papel.

**4.- Modificación del contrato**

Para el supuesto de que, dentro de la vigencia del contrato, la venta de tarjetas o recarga de títulos fuesen superiores a las estimadas inicialmente, se establece la posibilidad de modificación del contrato como consecuencia de tal circunstancia, en los términos previstos en el artículo 106 de esta Ley hasta un máximo del 30% del presupuesto. La citada modificación deberá tramitarse antes de que se agote el presupuesto máximo aprobado, reservándose a tal fin el crédito necesario para cubrir el importe máximo de las nuevas necesidades.

600.000 euroko muga eta gehienez 10.000 euroko frankizia dituena.

Garraio Partzuergoa poliza horretako aseguratzaile erantsia izango da, hirugarrena izateari utzi gabe

Kalteen polizak 300.000 euroko muga izango du gutxienez, zaintzapean biltegiratutako txartelen balio berria ordaintzeko.

**3.-Eskaintza aurkeztea:**

Eskaintza-egileak paperean eta CD batean aurkeztu behar du bere proposamena. Era honetan egingo da: B eta C gutun-azaletan, paperean dagoen dokumentazioa eta CD bat sartuko dira. CD horretan soilik egongo da dagokion gutun-azalari dagokion dokumentazioa.
Euskarri biak ez badatoz bat, paperean dagoen informazioa gailenduko da.

**4.- Kontratuaren aldaketa**

Kontratuak irauten duen bitartean, hasieran kalkulatutakoak baino txartel edo kargatze-titulu gehiago saltzen badira, inguruabar horregatik kontratua aldatzeko aukera ezarri da lege horren 106. artikuluan xedatutako terminoetan, eta gehienez ere aurrekontuaren % 30ean. Aipatutako aldaketa onetsitako gehieneko aurrekontua agortu baino lehen izapidetu beharko da, eta premia berrien gehieneko zenbatekoa estali ahal izateko beharrezko kreditua gordeko da..